

## **DESAGERTUTAKO IPHONE TELEFONOA**

iPhone 14 Pro Max bat erosi nahi nuen, eta prezioa ikusita (1.344 euro), Yoigoren finantziarioarekin erostea erabaki nuen. 56 euroko 24 kuota ordaindu behar nituen. Aseguru bat ere kontratatu nuen terminalerako.

Handik hilabete gutxira, mugikorra asko berotzen zela nabaritu nuen, eta batzuetan blokeatu ere egiten zela. Dendara eraman nuen eta ustez konpondu egin zuten. Baina mugikorrak berdin jarraitzen zuen. Hiruzpalau aldiz eraman nuen, baina ez zuten arazoa konpondu. Nik uste zerbitzu teknikora ere ez zutela bidaltzen.

Ez zitzaidan normala iruditzen kategoria horretako mugikor erosi berri batek hainbeste arazo ematea eta soluzio bat emateko gai ez izatea. Beraz, nazkatuta, Yoigoren dendakoei esan nien ez nuela mugikorrik nahi eta han utzi nuen. Ez zitzaidan axola ordura arte ordaindutakoa itzultzen zidaten ala ez. Ditzosozko aparatua gaineratik kendu nahi nuen, eta ez nuen nahi behar bezala funtzionatzen ez zuen mugikor batengatik ordaintzen jarraitu.

Baina Yoigok kuotak kobratzen jarraitu zuen. Eta mugikorra ere ez neukan!!

Kontsumo Bulegora joan nintzen, eta han faktura eta gailua itzuli izanaren egiaztagiria eskatu zizkidaten. Baina ez neukan ezer.

Arazo bat zela esan zidaten, ezin bainuen frogatu aparatua itzuli nuenik, eta argi zegoen Yoigok ez zuela horren berri izan.

Orduan dendara joatea erabaki nuen mugikorra itzultzeko eskatzera, baina ez zutela esan zidaten. Dendan aitortzen zuten itzuli egin nuela, baina ez zeukaten eta ez zekiten non zegoen.

Egoera horren aurrean, Kontsumo Bulegoak erreklamazio bat izapidetzea erabaki zuen, Yoigok azalpenen bat eman zezan. Bi aldiz saiatu behar izan zuten, Yoigok ez baitzuen erantzunik ematen.

Azkenean, aste batzuk geroago, erantzuna iritsi zen. Yoigok mugikorraren kuota guztiak baliogabetzea erabaki zuen, baita aseguruarenak ere, eta ordura arte ordaindutakoa itzultzen zidan. Guztira 1.505 euro ziren ordaindu behar ez nituenak!! Izugarritzko lasaitua hartu nuen, bizitzen ari nintzen egoera erabat surrealista zelako, mugikorrik ez neukan eta ordaintzen ari nintzelako!! Baina Kontsumo Bulegoak konpondu zuen. Ezin nuen sinetsi!!